

PUNTATIK PUNTARA

Berriak



Punta Begoña obrak amaitzeko eta galerien erabateko erabilera sozialerako ibilbide-orria aurkeztuko du 2025ean

*** 2024an zehar, espazio historikoak berreskuratzeko egiturazko esku-hartzeak egin dira itsaslabarraren eta saloiaren artean, erabilera soziokulturalerako**

2025. urteak Punta Begoñako berreskuratze integralaren azken faserako irteeraren abiapuntua markatzen du. Ikerketaren eta urgentziarako eta segurtasuneko esku-hartzeen faseen ondoren, integratzen den eraikinari eta kultura-paisaiari buruzko datu gehiago daude. Eta baita Getxoko milaka urteko historiari buruz ere, eraspene eta berreraikitze lanak egin izan balira gal zitekeena.

Gizarteak Punta Begoña ezagutu du prozesuan zehar, eta herritarrek gero eta jarduera eta proposamen gehiago eskatzen dituztenez, komenigarria da espazioak gaitzeko bidean aurrera egitea.

Udal talde guztiek osatzen duten Fundazioaren Patronatuari plangintzarako proposamen teknikoak aurkeztu ondoren, dokumentua 2025ean zabalduko zaio gizarteari, eta honako hauek erakutsiko zaizkio: esku-hartzeak, epeak, egokitutako espazioen erakusketa-, prestakuntza- eta gizarte-erabilerarako aukerak eta hiri-ingurunea hobetzeko laguntza.

Azken batean, Getxoko itsasertzean paisaiaren ikono gisa berreskuratutako aparteko ekipamendu zibikoaren erabateko erabilgarritasuna.



“Punta Begoña Zuzenean” irratia eta ondarearen zikloa jarduera nabarmen gisa finkatu da 2025eko Europako Jardunaldietarako

“PUNTA BEGOÑA, Zuzenean. En vivo y en directo”-ren 2025erako programa trinko batean ari gara lanean dagoeneko. Joan den urrian kultur ondarearen inguruan lan egiten duten dozenaka profesional konektatu zituen; baita kultur zaleak ere, eskuragarri zeuden edukierak bete zituztenak; Atlantikoaren bi aldeetako irati kateak, plataforma digitalak eta sare sozialak, programa milaka pertsonari helarazi zietenak; artista, sortzaile, musikari, bertsolari, artisau, kazetariak eta abar, monumentua ondarearekin lotutako ideiez, proiektuz eta esperientziak bete zutelarik.

Europak 70.000 ekitaldi baino gehiago egin zituen ondarearen hilabete hori



ospatzeko. Punta Begoña bat egin zuen Bizkaiko Programa Ofizialaren parte izateaz gain, Kultura Ministerioak baliozkotu eta Europako Kontseiluaren European Heritage Days programan txertatu zuen jarduerarekin.

Foro bat sortu da elkarrizketarako, kultura-trukerako, sorkuntzarako, errekonozimendurako eta babeserako, etorkizuneko proposamen eta proiektuetarako, eta ezin da hor geratu. Eta, horregatik, 2025erako programa trinko bat lantzen ari da, ondarearen arloko esperientziarik onenak bilduko dituen eta Europako Jardunaldien nahitaezko hitzordu bihurtuko dena.

Punta Begoña 100.000 bisitari baino gehiago izan ditu 2024an, berriro ireki zenetik

*** 2025. urterako, eraikinaren bilakaerari, obrari eta haren historiari buruzko edukiak gehituko dira**

2024an 100.000 bisitari baino gehiago izan dira Punta Begoña galeriak berriro ireki zirenetik. Bisitaldi gidatuak, familiakoak, prestakuntzakoak, turistikoa... hara hurbiltzeko ohiko formula izan dira. Baina baita erakusketak, jaialdiak, aurkezpenak, kontzertuak, antzezlanak, moda desfileak, foroak edo kongresuak ere. Eta gero eta gehiago dira Punta Begoñan beren ekimenak garatzeko paisaia eta agertoki aparta ikusten duten gizarte- eta kultura-kolektiboen proposamenak.



Horregatik, Fundazioa 2025erako bisiten edukiak lantzen ari da dagoeneko, birsorkuntza historikoak prestatuz, fisikoak zein ikus-entzunezkoak, Punta Begoñako, Getxoko eta Abrako gertaera nagusiak ezagutzea ahalbidetuko dutenak.

“Getxo, Puntatik Puntara” ibilbide historiko-paisajistikoa indartu egingo dira, herritarren eskaeren ondorioz urte amaierara arte luzatu behar izan baitira. Bisita antzertuak ere, Horacio Echevarrieta eta horrek irudikatzen duen garaian oinarrituak.

Eta “Obretan eta irekita” ereduak leku nabarmena izango du, eta orain arte prozesuaren behin betiko faseari aurre egiteko egindako eta programatutako esku-hartzeak erakutsiko ditu.

“Explorers” ondarearen bidezko heziketa programa hasi da Lehen eta Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako

*** Galeriak berriro ireki zirenetik, 10.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute prestakuntza-jardueretan, hezkuntza-maila guztiei eta arautu gabeko hezkuntzari zuzendurak**

Punta Begoñan, ikerketa eta esku-hartzea hainbat jarduerekin batera garatu dira: ikastetxeen bisitaldiekin, unibertsitateko gradu-eskolekin, graduondoko prestakuntzarekin eta prestakuntza profesionalarekin, hitzaldiekin, funtzionarioentzako espezializazio handiko ikastaroekin, foroekin, belaunaldien arteko tailerrek eta abarrek; eta horri esker, ikasteko maila anitzeko espazio bat eratu da modu praktikoa eta progresiboan.

Une honetan, Fundazioa ikastetxeentzako programa espezifiko bat amaitzen ari da. Programa horretan, eguneroko bizitzako alderdi asko ulertzeko ondareak duen garrantzia erakutsiko zaie ikasleei. Horretarako, eskola-curriculumera egokitutako Unitate Didaktikoez antolatutako programa bat diseinatu du. Unitate horietako bakoitza historian, arkitekturan, arkeologian, natur zientzietan, paisaian edo hirigintzan barneratuko da, baina betiere esplorazioaren eta parte-hartze aktiboaren irizpidearekin.


“Explorers” programak irakasleen eta ikasleen eskaereta egokitzea bilatzen du. Horregatik, “Esperientzia: egun bat Punta Begoñan” eguneko saioetatik abiatuta, zabaldu egingo da interes akademikoaren arabera. Tresna praktikoez (argazkiak, liburuxkak, mapak, bideo elektronikoa...) esplorazioa, aurkikuntza eta esperimentazioa erraztuko dituzte, eta ikasleei ondarrera hurbiltzean zeregin protagonista bat emango diete.

Info: www.puntabegoñagetxo.eus.



Eitb Punta Begoñan izan da euskal kulturaren topagune gisa

EITB Kultura euskal telebista publikoaren programa bat da, eta 2024an abiatu zuen, Punta Begoñan, “asteroko bidaia bat, Euskal Herriko sorkuntza artistikoaren berritasun, joera eta zirrikietan barrena”, eta 2025ean emisio berrietarako grabazioekin jarraituko du.



Programak sentsibilitatez tratatzen ditu edukiak eta garatzen diren espazioak. Eta Punta Begoña leku ezin hobea iruditzen zaie kantuz, poesiaz, pentsamenduz, rap musikaz eta abarrez betetzeko eta eraikinak sorkuntza aberasten duen pieza artistikoak sortzeko.

“Tokiek abestiak aldatzen dituzte eta, batzuetan, musikari bat gehiago dira”, gogoeta egin zuen Amaia Mirandak. Bere ahots eta gitarrarekin soinu magikoak lortu zituen galerietan, joan den urriaren 11n emandako programan. Eta beste adibide bat, azaroaren 29an, Laura Sam-ekin. Horren musikaz eta poesiaz sentsibilitate handiko uneak sortu zituzten Punta Begoñan, programak modu delikatu harrapatu eta transmititu zituenak.

Fundazioak Galeako Gotorlekua egokitzeari ekingo dio 2025ean

*** 1. fasean, garbiketa, lorezaintza eta erakusketen zabalkundea egingo dira, euskarri eta bisita gidatuen bidez**

Galeako Gotorlekuaz ere arduratzen da Punta Begoña Fundazioa eta ekipamendu hori gizartearen erabilerarako eta gozamenerako berreskuratzea da herritarrek gehien eskatu duten esku-hartzeetako bat, eta hala adierazi du, 2025erako Getxoko aurrekontu parte-hartzailetan boto gehien lortu dituen bigarren aukera izan baita.

Badira alderdi batzuk beren kabuz esku-hartzea justifikatzen dutenak: monumentuaren balio historikoa, ondarezkia eta emozionala, haren edertasuna eta Abrako

badiaren talaia gisa duen kokapen estrategikoa, eta gero eta gehiago direla haren ingurutik paseatzen dutenak, bertokoak eta bisitariak, monumentua ezagutu nahi luketenak. Bien bitartean, Punta Galea eta Punta Begoña lotzen dituen ardatz historiko eta paisajistikorekiko interesa egiaztatuta geratu da Fundazioak antolatutako “Getxo, Puntatik Puntara” bisite emandako erantzunarekin.

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua ebatzearen ondorioz, 156.000 euroko partida bat gaitu



da gotorlekuan jarduteko, espazio eta horma ezberdinetan garbiketa- eta lorezaintza-lanen bidez.

Horren helburua 1743an eraiki zuten Bizkaiko defents militar garrantzitsuenetako baten historia zabaltea da, bisita gidatuak antolatuz, kokagune horren edertasuna eta potentziala erakusteko. Informazioa eta parte-hartze funtsezkoak izango dira 2025ean hasiko den prozesu batean, herritarren proposamena oinarri hartuta.